

mila leiho zabalik



Jarioak

- Hasiera
- Blogariak
- Blogosfera
- Klik

Albiste guztiak  
GAUR8.info  
e.lkarrizketa -

## Jakoba Errekondo: «Ingelesak harritu egiten ziren euskal arrantzaleak ez zutelako eskorbutorik; sagardoagatik zen»

Hogei urte darama irratian landareei buruzko aholkuak ematen

Joxean Agirre

2008ko Martxoaren 07a

Hogei urte pasa darama Euskadi Irratian landareei buruz astero aholkuak ematen, baina are eta harrigarriagoa da landareei buruz historiaren, antropologiaren edo zernahi ikuspegitik nola hitz egiten duen ikustea. Aitaren zerrategian hasi zen zuhaitz mota ezberdinak bereizten eta maitatzen, eta, geroztik, jakituria hori pilatuz joan zaio. Horrenbestez, aspertu gabe egon daiteke edonor Jakoba Errokondori entzuten. Lorategi botaniko baten itxura duen eta bere irudira eta gogora zaharberritu duen baserrian hartu gintuen.

Zuk noiz edo noiz esan izan duzu landareek eta zuhaitzek memoria moduko bat dutela.

Pare bat milioi urte daramagu gizaki bezala mundu honetan, baina landareek 250 milioi urte edo gehiago daramate. Nahi eta nahi ez, irauteko estrategiak garatu dituzte. Egunen batean, abereak mundu honetatik desagertuko gara, baina landareek hemen jarraituko dute. Landareak dira mundu honetako oinarria, beren buruak elikatzen ikasi dute. Guk, aldiz, bizitzeko beste norbait hil eta jan behar dugu. Landareek memoria bat dute eta programatzeko gai dira. Sagarrondoek, adibidez, urte batean sagarra ematen dute eta hurrengoan ez. Ez dakigu garunik duten edo ez, memoria hori non dagoen, edo sakabanatutako sistema bat den. Egia da baita gu hori hobetzeko gai garela eta sagarrondoa urtero sagarrak ematen jar dezakegula. Natura kaos sortzailea da eta landareak ere etengabeko borroka batean ari dira beren artean. Batzuk bakarrik ateratzen dira garaile.

Zein dira tamainagatik edo adinagatik gehien miresten dituzun zuhaitzak?

Mirestekoa moduko asko daude. Oraintxe ari gara Zerainen meategietako museoa egiten. Burdinaren Mendia deitzen diogun mendi handi bat dago, XIX. mendetik utzita egon dena. Hor bat-batean Gipuzkoako hagin multzo handiena aurkitu dugu. Hagin oso gutxi dago; mila urte bizi den zuhaitza da, Gipuzkoako sinboloa. Garai batean torneatuak eta tailak egiteko erabiltzen zen, oso egur trinkoa duelako. Beste adibide bat jartzeko, Andoaingo auzo batean, Sorabillan, Euskal Herriko gurbitz (madroño) basorik handiena daukagu. Izugarritzko zuhaitzak dira eta badute bitxitasun bat: azaroan-edo ematen duten frutarekin batean hurrengo urteko lorea ematen dute. Beraz, etengabe ugaltzen ari den landarea da. Bere

bizitza zalantzan dagoela pentsatzen du nonbait eta ahal duen neurrian ugaltzen saiatzen da. Sorabillan parke berria egiten ari dira eta, joan den igandean, gurbitz bana landatu zuten umeek. Arazoa da etxeko ataritik aurrera zer daukagun ez dakigula. Astigarraga izena duen herri batean, ez dute astigarra ezagutzen. Herrian landatu genituen eta, bere garaian, baso bat ere jarri zen herriko lurretan. Herritar bakoitzeko arbola bat jarri zen. Garai batean musika tresnak egiteko erabiltzen zen astigarra.

Zer dago arbola bat gurtzen duten herrien pentsaeraren atzean?

Herriek arbolari ematen dioten sinbologia izugarria da. Hagin bat bi edo hiru mila urte bizi daiteke. Ehun belaunaldi igaro daitezke etxe batean atariko hagin bera ikusiz. Horregatik jartzen da arbola hori etxe atarietan, etxeari mila urteko bizitza eman nahi diozula adierazteko. Nik hortxe daukat bat -leihotik ataria seinalatu du-. Haginak moztu zirenean arteak eta intxaurrondoak jarri ziren. Intxaurrondoagatik esaten da etxetik urrun ezin dela bizi. Esaerak dio intxaurrondoak etxeko errietak entzun behar dituela. Naturaren barruan bizi izan garen herria gara. Haritza da beste kasu bat. Gernikakoa ez da kasualitatea. Haritza izan da gehien erabili den egurretakoa, bai eraikuntzan bai ontzigintzan. Beraz, normala da haritza gurtzea, Ekainen zaldia gurtzea normala zen bezala; izan ere, zaldia zen naturaren adierazpena eta seguru asko zaldia jan ere egiten zuten. Abereen eta landareen gurtza animismoa da. Orain bost mila urte Neolitoan nekazari bihurtu ginelarik, lehen abereak zuen indarra landareak hartu zuen. Gaur ez dugu natura gurtzen, menderatu egiten dugu eta, gure zalantza etikoak argitzeko, jainko bat asmatu dugu.

Harrigarriak dira zuk sagastiei buruz eman izan dituzun datuak. XVI. mendean Gipuzkoako lurren laurdena sagasti zirela entzuna dizut.

Gaur hegazkin batetik begiratu eta Gipuzkoaren laurdena pinua da, baita Bizkaiko herena ere. Hori monolaborantza da, astakeria. XVI. mendean sagastiekin berdina gertatzen zen. Euskal Herriko itsas aldeko paisaia bi elikagaik diseinatu dute: gaztak eta sagardoak. XVI. mendean mila sagardotegi zeuden Gipuzkoan, sagardoa egitera dedikatzen ziren mila faktoria. Gaur egungo 120 sagardotegiak hutsaren hurrengoak dira haiekin alderatuta. Igartubeiti baserria, esaterako, dolarea zen lehenik eta gero bihurtu zen baserri. XVI. mendera arte ez dago baserririk. Jendea bordetan edo harkaitz azprietan bizi zen. Itsas aldeko Euskal Herria oso leku txarra eta pobrea izan da nekazaritzako. Hegoaldean, berriz, zerealek, ardoak eta olibondoek markatu izan dute paisaia mendez mende. Itsas aldean, ordea, XVI. mendera arte hiribildu batzuk baziren, baina beste guztiak bordetan bizi ziren. Eta mende horretan, kolpetik, Gipuzkoak sekulako aldaketa jasan zuen: garai hartako Manhattan bihurtu zen. Gipuzkoatik ateratzen zen Gaztelako artilea eta garia. Era berean, Bizkaia ekialdean eta Nafarroa mendebaldean burdin produkzio izugarria zegoen eta burdin hori guztia Gipuzkoatik bideratzen zen kanpora, Eskoziara edo Holandara. Horrez gain, Amerika ere deskubritu berria zen eta joan-etorri gehienak lurralde honetatik egiten ziren edo, bestela, Sevillatik. Hori bai, ontziak betiere hemen egiten ziren. Gipuzkoan bat-batean sekulako dirutza sartu zen. Milaka lagun ari ziren ontzigintzan lanean. Mendiak sutan zeuden burdinolak elikatzeko ikatza behar zelako. Gizartea erabat industrializatu zen. Hemen, Aginagan bertan, lauhun arotzeko ontziolak zeuden garai hartan. Gizarte osoa enplegatu zen ontzioletara egurra ekartzen, iltzeak egiten, ikatza egiten, belak egiteko erabiltzen zen lihoarekin, sokak egiteko kalamuarekin... Jende horrek edari bat behar zuen. Ardo gutxi eta txarra zegoen; gainera, uruti zegoen. XVI. mendearen bigarren erdian mila dolare eraiki zituzten Gipuzkoan. Espainiak inperioa galdu eta gizarte hori desegin zenean, dolareak inguratuz baserriak eraikitzen hasi ziren.

Aipatu ohi denez, garai horretan ura edateko beldurrez ibiltzen ziren.

Ura txarra zen garai horretan, arriskutsua. Orain ura kloratuta edaten dugu, ez dakit hori ere ona den, baina ordukoak gaitzak ekartzen zituen. Oraindik ere badira baserrian ura sekula edaten ez dutenak. Mundu guztiak edaten zuen sagardoa. Sagardoa edari bizia da, mineralak eta bitaminak ditu eta alkoholak bizirik iraunarazten du. Garai horretan Ternuara bakailaotara edo bale bila zihoazen arrantzaleek sagardoa eramaten zuten. Eguneko bina litro eramaten zituen bakoitzak garaiko kontratuaren arabera. Egindako kalkuluaren arabera, Bilbo eta Baiona artean hiru milioi litro sagardo behar ziren arrantzaleentzako bakarrik. Izugarria da. Garaiko ingelesak harritu egiten ziren euskaldunek eskorbutorik ez zutelako harrapatzen; sagardoak C bitamina duelako saihesten zuten gaitza.

Pinuak ordezkatu zituen ondoren sagastiak. Nondik etorri zen gaur ezagutzen dugun «Pinus Radiata»?

Guk badugu bertako pinua, pinu gorria deitzen dioguna. «Insignis» edo «radiata» pinuaren denbora bikoitza behar du egurra emateko. «Pinus radiata» Kaliforniatik etorri zen. Bizkaitar batek ekarri zuen eta sorlekuan gaur 8.000 hektarea badira ere, Euskal Herrian 150.000 hektarea ditugu, ipar hemisferioan dagoen multzo handiena. Txilen, Australian eta Zeelanda Berrian badira multzo handiagoak. Sekuoiak eta moregak (zeta egiteko) ekarri ziren, baina ez zuten arrakastarik izan; aldiz, pagoak eta pinu mota honek bai. Pagoak 5.000 urte daramatza hemen. Gaztaina erromatarrek ekarri zuten. Haritza, hurritza, urkia, lizarra edo haltza betikoak dira, aspaldiko polen azterketetan ere agertzen dira.

«Insignis»a gerra ondoko autarkiari esker zabaldu zen irudipena dugu.

Lehenagokoa da. Dirua ematen zuelako zabaldu zen eta gaur jartzen ez bada, ematen ez duelako da. Kalitateari eta ingurumenari begiratzen ere hasi beharko dugu. Nik pagoa jarri dut baso batean eta zedroa sartu dut beste batean.

Utz dezagun sagardoa. Eta ardiak, noizkoak dira?

Lehenagokoak dira, baina orain berrehun urte jaio zen egungo erako artzaintza. Espainiaren inperioarekin batean erori zen Gipuzkoako ekonomia. Artoak salbatu zuen egoera mende erdi geroago, artoa garia baino hiru aldiz emankorragoa baita. Guk dakigunaren arabera, Iparraldeko fraide batek ekarri zuen. Artoari esker hasi ziren baserriak eraikitzen. Babarrunak, piperrak... geroago iritsi ziren. Gure menderik txiroenetakoa XIX. mendea izan zen, gerra bat bukatu eta bestea hasi ibili baitziren. Herri lurrak saldu ahala jauntxoek erosi zituzten eta orduan hasi ziren artzainak mendira joaten. Industriak ekarri zuen ondoren beste aldaketa handi bat, sagastiek eta arto sailek utzitako lekuak pinuak hartu baitzituen. Pinuren aroa bukatzen ari da; horrenbestez, biharko nolako paisaia nahi dugun aztertzen hasi beharko genuke.

Laguntzaileak  EUSKO JAURLANITZA  
GOBERNUA BASCO